

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EUSKADIN: HERRITARREN PERTZEPZIO ETA IRITZIAK (2015eko azaroa) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia **emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan biztanleek dituzten pertzepzio eta iritzia** dira, bereziki, emakumeek euren bikote edo bikote ohiengandik jasotako indarkeriari buruzkoak.

GENERO BERDINTASUNAREN INGURUKO JARRERAK

Jendartearen gehiengoak desberdintasuna emakumeen aurkako indarkeriarekin lotu du

EAEko biztanleen %75ek garrantzi *handia* eman diote gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaiari. **Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren egoera Euskadin 6,4 puntukoa** dela deritzote, non 0ak *"desberdintasuna erabatekoa"* dela eta 10ak *"berdintasuna erabatekoa"* dela esan nahi duten. Pertzepzioa hobetu da 2012tik, orduan 5,6 puntu jaso zituen.

Herritarren %77ren iritziak gizon eta emakumeen arteko desberdintasun egoerak dirauen bitartean, emakumeen aurkako indarkeriak jarraituko du (%41 oso ados eta %36 nahikoa ados). Emakumeen %80 ados dago, gizonen %73ren aldean. Euren burua ezkerrekotzat jotzen dutenek gainerako definizioetakoek baino adostasun handiagoa adierazi dute. Adostasuna handitzen da Euskadin berdintasun maila zenbat eta baxuagoa dela iritzi edota ikasketa maila handitu ahala.

IKUSGARRITASUNA, ONARPENA ETA LARRITASUNA

Gehiengoak etxe barneko tratu txar mota guztiak larritzat hartzen ditu, zenbait tratu txar psikologiko hurrenkeraren azken tokietan daude

Azken aldian bikotekide edo bikotekide ohiek emakumei egindako eraso, tratu txar eta erailketen inguruko berriak gehitzearen arrazoiak, jendartearen %61en ustez *kasu gehiago ezagutzera ematen direla da*, %18k *indarkeria gehitu dela* uste duten bitartean eta %15ek *arrazoi biei* dagokiela.

Gizon batek bere bikotekide edo bikotekide ohia indarkeriaz tratatzeari buruz galdetutakoan, %90ek *onartezina da eta beti legez zigortu behar da* diote eta %6k *onartezina da baina beti ez da legez zigortu behar*; onargarria dela deritzotenak ez dira %1era iristen. Genero indarkeria ez onartzean EB27ko batezbestekoaren gainera dago Euskadi, España, eta Grezia bakarrik ditu aurretik.

Emakumeen aurka etxe barnean ematen diren tratu txar modu desberdinak baloratzerakoan, gehiengo zabalak uste du inkestan aurkeztutakoak *oso edo nahikoa larriak* direla. Portaera bakoitza **oso larria** dela dioten **portzentajeen arabera, hiru multzotan** sailkatu ditzakegu:

1. **Gutxienez herritarren %75ek oso larritzat dituztenak:** jotzea (%96), bere borondatearen aurka harreman sexualak izatera derrigortzea (%88), emakumearen irudiak, argazkiak, informazioa hedatzea bere baimenik gabe (%80) eta mehatxuak (%75).
2. **Biztanleen erdia baino gehiagok oso larritzat dituztenak:** mugikor eta sare sozialen bidez kontrolatzea (%69), senide eta lagunekiko harremanak mugatzea (%63), janzteko modua kontrolatzea (%62) eta gauzak erabakitzen ez uztea (%60).
3. **Erdia baino gutxiagok oso larritzat dituztenak:** etengabe gauzak egiteko duen moduz kexatzea (%47), irainak (%38) eta ardura edo jaramonik ez egitea, kontuan ez hartzea (%25).

Inkestan aurkeztutako tratu **txar moduen larritasunaren balorazioa nabarmen hazi da 1997arekiko**, neurri txikiagoan *jotzeari* dagokionez, izan ere, dagoeneko herritarren %93k oso larritzat zuten.

Emakumeek gizonen baino zerbait larriago hartu dituzte aurkeztutako txatu txar psikologiko mota batzuk. 65 urte baino gutxiago dituztenak adin nagusien taldekoak baino zorrotzagoak dira, salbu jotzea edota jaramonik ez egitea, kontuan ez hartzeari dagokionean. Ikasketa maila handitu ahala, portaera hauekiko zorrotasuna handitzen da, hirugarren multzoan jasotakoei buruz izan ezik. *Agnostiko, ateo* direla diotenak katoliko direla diotenak baino zorrotzagoak dira (salbu eta jaramonik ez egitea, kontuan ez hartzeari dagokionez) eta baita euren buruan *ezkerrekotzat* dutenak gainerako definizio ideologikoetakoak baino.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INGURUKO IRITZI ETA MITOAK

Iritzi eta mito hedatuenean inguruko adostasuna handitu da azken urteetan

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko zenbait iritzi eta mitoekiko adostasuna zabala da, hala-nola, *alkohol eta droga-abusua emakumeen kontrako indarkeriaren egintza gehien atzetik dago* (%62 oso edo nahikoa ados) eta *erasorik gehienak estres-maila handia dagoenean edo kontrola une batez galtzen denean gertatzen dira* (%61). Atzetik datoz genero indarkeria kasuetan salaketa faltsu asko dago (%39), *etxean bortitza edo biolentzia dena lanean eta lagunekin ere hala izango da* (%38) eta *atzeritarrek dira genero indarkeriaren emakume biktime gehienak* (%27). **Askoz adostasun txikiagoa jaso dute honako iritziek:** *emakumeen jarrera eta portaerak beraiek eragiten dituzte genero indarkeria kasuak batzuetan* (%14), *emakumeen kontrako indarkeria matxista soilik klase pobreenetan gertatzen den fenomeno da* (%12), *etxeko indarkeria kontu pribatua da eta etxean geratu behar du* (%5) eta *genero indarkeriak ez du gazte jendearengan eraginik* (%5).

Nabarmendu behar da **dezente igo dela hurrenkerako lehenengo hiru iritziekiko adostasun maila 2012tik:** *alkohol eta droga-abusua emakumeen kontrako indarkeriaren egintza gehien atzetik dago* (%50 zeuden oso edo nahikoa ados eta gaur egun %62), *erasorik gehienak estres-maila handia dagoenean edo kontrola une batez galtzen denean gertatzen dira* (%42 ados eta orain %61) eta *genero indarkeria kasuetan salaketa faltsu asko dago* (%25 ados eta orain %39). Haatik, %19tik %14ra jaitsi da *gaur egun emakumeen jarrera eta portaerak beraiek eragiten dituzte genero indarkeria kasuak batzuetan iritziarekiko adostasuna*.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN HEDADURA

Euren ingurune hurbilean tratatu txarrak jaso dituzten emakumeak eta tratatu txarrak eman dituzten gizonak ezagutzen dituztenen ehunekoak igo egin dira 2004tik

EAEko biztanleen %27k diote euren familia ingurunean, lagunak, auzokoen edo lankideen artean ezagutzen dutela euren **bikotekideen aldetik tratatu txarrak jaso duen emakumeren bat** eta %28k **emakumeren bati tratatu txarra eragin dion gizonik**. Tratatu txarrak jaso dituzten emakumeen kasuen ezagutza maila igo egin da 2004tik (orduan %18 ziren).

Arazoaren hedadura zabala argi geratu zen EBko Oinarrizko Eskubideetarako Europako Agentziak (FRA) 2014an emakumeen aurkako indarkeriari buruz osatutako “Violence against women: an EU-wide survey” ikerketan, bertan ondorioztatu zen Europako emakumeen %33k indarkeria fisiko edota sexuala jaso dutela 15 urte zituenetik eta %43k indarkeria psikologikoa.

Gizon bat emakume bat erasotzen edo tratatu txarrak ematen ikusiko balu, herritarren erdiak *poliziarri deituko lioke* (%52k), %21k *erasotzaileari aurre egingo lioke*, %17k *lagundu ahal izango luketen beste persona batzuei esango liekete* eta %1ek *ezer ez luke egingo*.

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO LEGEA ETA BIKTIMEN BABESA

Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Legearen ezagutza %46koa da. Biktimen babeserako neurriak baliagarriak direla deritzo gehiengo zabalak

Biztanleen %46k ezagutu edo entzun dute zerbait Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Legeari buruz, %52k ez. Ezagutza handiagoa da Estatu Espainiarrean (%60).

Administrazio publikoek genero indarkeriaren biktime direnen babeserako hartzen dituzten neurriak oso edo nahikoa baliagarriak dira herritarren %80 baino gehiagorentzat: laguntza psikologikoa (%93), emakume biktimentzako arretarako telefono zerbitzua (%91), etxebizitza babestuak eta biktime laguntza eskatzera animatzeko kanpainak (%90), lana bilatzeko laguntza, lege arloko laguntza eta etxebizitza alorreko laguntzak (%87) eta, azkenik, diru-laguntzak (%84).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabalduta kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,23$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2015eko irailaren 21a eta 24a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak